

## SECCION AMENA

---

# ZUBITIK BEGIRA.

---

—¿Zer ari ote dira  
 batel oyek denak,  
 alkarren arrimuan  
 aiñ geldi daudenak?  
 —Oiyek egongo dira  
 detanez ikusten,  
 ia chipiroirikan  
 arrapatzten duten.  
 —¡Zer gauza chokantia!  
 —¿Chokantia dala?  
 auntzak uste aldezu  
 achitzen irala?  
 —¡Nola moldatzen diran  
 gauza orretako,  
 jakiñ nai nuke bada  
 beste baterako.  
 —¿Nola? Apareju bat  
 ille guchikua,  
 amabost edo ogei  
 braza luzekua  
 artzendute, chinchilik  
 puntan aguariña,  
 dubela, berunakiñ  
 poliki egiña:  
 jiran orratz chorrochak  
 ongi kakotubak,  
 puntak gora begira  
 alkarri lotubak

ditubela, ura da  
 putzura botatzen,  
 eta eskubarekiñ  
 asten da dantzatzen.  
 Zeren esaten duten  
 dantzatzia orla,  
 chipiroyari guztiz  
 chokatzen zayola;  
 eta ikusirikan  
 ala fandanguan,  
 chipiroya presaka  
 juaten da orduban  
 jostaketan artubaz  
 berarekiñ parte,  
 Šarpetatikan preso  
 gelditzen dan arte.  
 Orduban kontu aundiz  
 biarda atera  
 uretik, eta sartu  
 gero batelera.  
 Ez det aitu bestela.  
 arrapatzten danik.  
 —Beste modura bada  
 achitzen ditut nik.  
 —Gusto aundiz nai nuke  
 modubori jakin...  
 —Gizona, plateratik  
 tenedoriakiñ.